

LEITZAKO ERLETA IP-KO IKASLE ETA IRAKASLEEN AHOZKO PRAKTIKA

BELAUNALDIEN ARTEKO ZUBIA

Leitzako *Erleta* IPko irakasleek, ikasleen ahozko gaitasuna hobetzeko asmoz, [formazioa](#) jaso zuten 2013-14 ikasturtean, EIBZ eta Euskara Atalaren eskutik. Horren ondorioz, ahozkoa lantzeko hainbat praktika burutu zituzten, eta horietako bat partekatu nahi dute orain, irakasle eta ikasle guztien eskura egon dadin.

[LHko 3. mailako ikasleek grabatutako irratsaioa](#) da, Sagrario Lasarte irakaslearen gidaritzapean; bertan, ikasleek aiton-amonengandik entzundako bizipenak kontatu dituzte. Gainera, herri osoak aditzeko aukera izan du. Dakigunez, oso arrakastatsua izan da, adierazkortasun handiz egin baitute; ahotsa jarri diete aiton-amonen bizipenei, eta bizitasun handiko hizketaldia sortzea lortu dute beren haur-ahotsen bidez. Zalantzarik gabe, belaunaldien arteko ahozko transmisioa oso modu erakargarrian egin dute.

